

## KAPITALAREN MINTEGIA

### 4. SAIOA

#### HIRUGARREN ATALA

##### KOKAPENA

“Lan-jardunaldia” eta “gainbalio-tasa eta gainbalio-masa” izeneko kapituluekin, bukaera ematen dio Marxek hirugarren atalari. Kapitulu hauek aurrekoetan azaldutako kategorien garapen logiko gisa ulertu behar ditugu; eta beraz, soilik horiek premisatzat hartuta konprenitu dezakegu edukia. Horrela, bigarren atalean ebatzi zuen zirkulazioaren esferatik ezkutuan dagoen ekoizpenaren esferara igaro behar garela (Marx 1975, 214) balio magnitudearen handipena edo gainbalioaren ekoizpena nola gauzatzen den argitzeko. Bada, datozen lerroetan laburtzen diren kapituluaren helburu nagusia hauxe dela esan daiteke: gainbalio absolutuaren balorizazioak erakusten dituen mugak azalratzea; honakoak frogapen historikoen bidez erakutsiz.

Esposizioarekin jarraitu aurretik, baina, aipagarria da, batik bat “lan-jardunaldia” kapitulua, aurreko eta hurrengo kapituluek ez bezala, haren izaera historikoak ezaugarritzen duela: XIX. mendeko Ingalaterrako gizarte kapitalistaren ekoizpen adar ezberdinetako langileen lan-eta bizi-baldintzen azterketa sakona egiten baitu, bai eta XIV. mendetik XVII. mende arteko lan-jardunaldiaren legezko arautzearen aldeko langile-borroka xehetasunez aurkeztu ere.

Alabaina, horrek ez du esan nahi, Marxek obraren atal honetan lanaldiaren kategoria XIX. Mendeko kapitalismoaren ezaugarri aldakorretatik abiatuta azaltzen duenik; kontrara, berau osatzen duten funtsezko egituren funtzionamendua argitzen saiatzen da (Heinrich 2018, 21). Izan ere, egileak ez du Kapitalaren liburuan dagoen esposizio sistematikoa kapitalaren beraren sorrera edo garapen historikoaren eskutik ulertzen; hau da, elementu historikoak haren obraren kategorien ordena logikoaren mendekoak dira. Beraz, obran zehar egon daitezkeen ikerketen edo pasarte historikoen zergatia esposizio sistematikoari argibideak eskaintzea edo berau osatzea da (Ruiz Sanjuán 2019, 205-207). Hori horrela, gainbalioaren ekoizpenaren beharra da, edo Marxen hitzetan, gainlanaren gosea, ekoizpen kapitalistaren funtsa eta lan-jardunaldiaren nolakotasuna baldintzatzen duen fundamentua.

##### VIII. KAPITULUA. LAN-JARDUNALDIA

Abiapuntuko premisa da ekoizpen kapitalistaren edukia eta berariazko helburua gainbalioaren ekoizpena dela (Marx 1975, 359); eta hori lortzen da ekoizpen prozesu kapitalistak aurreratutako balio kopurua gainditzean (Marx 1975, 236)<sup>1</sup>. VII. kapituluaren jada azaltzen da nola osatzen den kapitala (haren izaera konstante eta aldagarria) eta hau nola balorizatzen den<sup>2</sup>, bai eta honakoa nola neurtu daitekeen ere: gainbalio tasaren bidez, edo lortutako balio gehigarria (gainbalioa) eta kapital-aldagarria (lan-indar merkantziaren balioa) alderatuz (Marx 1975, 260).

---

<sup>1</sup> “Orduan, nola lortzen du kapitalistak gainlana gauzatzea? Prozesu honen hasiera, noski, zirkulazioaren esferan ematen den elkar-trukean kokatzen da; hau da, langileak haren lan egiteko gaitasuna saltzea besterik geratzen ez zaionean eta kapitalistak lan-indarra erosten duenean soilik gainbalio iturri den neurrian. Alabaina, gainbalio izateko gaitasuna soilik gauzatzen da ekoizpen kapitalistan, langileak kapitalistaren kontrol pean lan egiten duenean. Lan-jardunaldia luzatzeko edo teknifikatzeko duen botereaz baliatuta, kapitalak lana, esplotazio tasa eta gainbalio tasa handitu ditzake. Marxek ekoizpenaren esferaren garapenari buruz azaldutakoa bi aldagai hauetan zentratu zen: lan-jardunaldian eta errentagarritasun mailan” (Lebowitz 1992, 51).

<sup>2</sup> “Kapitalaren balorizazioa haren aldagai aldagarriaren ondoriozkoa den heinean, balorizazioaren gradua neurtu daiteke gainbalioa eta kapital aldagarria alderatuz: p/v magnitudea, Marxek gainbalio tasa gisa izendatutakoa” (Heinrich 2019, 142).

Lan-jardunaldira ekarrita, horrek esan nahi du lan-prozesua bi momentuk osatzen dutela. Izan ere, lan-jardunaldiaren momentu batean kapitalistak kapital aldagarri gisa aurreratutako balioa eskuratzen da. Zentzu horretan, prozesu hau balioaren erreproduzio soila da, eta horregatik, Marxek momentu horri lan-jardunaldiaren beharrezko den atala *-tiempo de trabajo necesario-* deritso<sup>3</sup> (Marx 1975, 260-261). Alabaina, momentu historikoaren arabera, lan-indar merkantziaren balioa handitu badaiteke ere, baldintza kapitalistetan, honakoaren erreproduzioak beti osatu behar du langileak ekoizten duen balio osoa baino balio txikiagoa. Bestela esanda, ezinbestean da beharrezkoa langileak haren lan-indarraren balioaren erreproduzioa baino gehiago lan egitea (Ruiz Sanjuán 2019, 249). Beraz, beharrezko den atala lan-jardunaldiaren gutxieneko muga da (Marx 1975, 278). Gauzak horrela, lan-jardunaldiaren bigarren momentua beharrezko den lanaz gaindi egindako lanak osatzen du, kapitalistak bereganatzen duen balioa ekoizten duena. Bada, honakoa gainlan *-tiempo de plustrabajo-* gisa izendatzen da (Marx 1975, 261).

Hau guztia dela eta, sistema kapitalistaren funtzionamendurako premisa da langileak haren erreproduzioa bermatzeko baino gehiago lan egitea, hau da, kapitalistak bereganatzen duen gainerako lana egitera behartuta dago, *ordaintzen ez den lana*<sup>4</sup> egitera kondenatuta (Ruiz Sanjuán 2019, 248-249). Langileari ekoizpen prozesuan egindako honako lapurretari esplotazioa deitzen dio Marxek (Ruiz Sanjuán 2019, 248); eta gainlanaren eta beharrezkoa den lanaren arteko proportzioaren bidez neurtu daiteke haren gradua (Lebowitz 1992, 50). Edo berdina dena, kapitalaren balorizazioa haren aldagai aldagarritik eratoritzen da, eta haren balorizazio gradua gainbalio tasaren bidez da neurgarria<sup>5</sup>. Hala eta guztiz ere, gainbalio tasak lan-jardunaldiaren bi osagaien arteko proportzioaren berri eman diezaguke (Marx 1975, 263), nahiz eta ezin duen adierazi atal bakoitzaren magnitudea, ez eta lan-jardunaldiaren luzera ere (Marx 1975, 278).

Bide horretan, kapitalak langileak beharrezko den lanaz gaindiko gainbalioa ekoiztera behartzeko formulak topatu behar ditu<sup>6</sup>; eta moduetako bat da kapitulu honetan aztertutako lan-jardunaldia beharrezkoa den lanari dagokion denbora baino gehiago luzatzea; izan ere, gainlana gainbalioaren beste aurpegia da, gainlana kristalizatutako gainerako lana besterik ez delako (Ruiz Sanjuán 2019, 249). Beraz, kapitalak eskala hedatuan balorizaturia izateko duen beharrezkotasuna dela eta, haren bulkada indartsuenak ahalik eta lan bizi gehien xurgatzera darama (Lebowitz 1992, 51)<sup>7</sup>. Bada, lan-indarraren muga fisikoak edota gizartearen muga sozialak edo moralak dira lan-jardunaldiaren luzatze grina zedarritzen dutenak (Marx 1975, 279).

---

<sup>3</sup> Aipatzekoa da, Marxek honakoa “emanda dagoen magnitude” *-magnitud dada-* gisa definitu arren, beti gaitzetsi zuela langileen beharrianak betiereko eta aldaezin gisa hartzeko joera: “Marxek lan-indarraren balioak barne biltzen dituen beharrianen multzoa emanda dagoen magnitude gisa hartu zuen. Hau da Marxek erabiltzen zuen metodoaren hipotesi bereizgarrietakoa. Izan ere, langileen beharrik aldaezin gisa hartzeak (jakitun zenean ez zela horrela) ahalbidetzen zion aldagarria zen elementua azpimarratzea: gainbalioa sortzen duen beharrezkoa ez den lana, hau da, langileak bizi duen esplotazio gradua” (Harnecker 2018, 20 in Lebowitz, 1992).

<sup>4</sup> Horrek ez du esan nahi lan-jardunaldian egindako lanik ordainduta dagoenik, edota langileak bereganatzen duenik. Kontrara, “langileak kapitalistaren kontrol pean lan egiten du, eta berari dagokio beharginak ekoiztutako guztia” (Marx 1983a, 224 in Lebowitz 1992, 49). Are gehiago, “produktua kapitalistaren jabetzazkoa da, ez haren zuzeneko ekoizlearena, beharginarena” (Marx 1983a, 224 in Lebowitz 1992, 49).

<sup>5</sup> “Lan-indarraren esplotazio gradua gainbalio tasari dagokio, esplotazio graduaren adierazpen zehatza dena. Gainbalio tasa, bada, gainlanaren eta kapital aldagarriaren arteko proportzioak definitzen du” (Ruiz Sanjuán 2019, 249).

<sup>6</sup> Kontuan hartzekoa da kapitalaren existentziarako premisa dela kapitalistak haren lan indarra saltzeko askea den beharginarekin egin behar du topo merkatuan, beste gizarteetan gertatzen ez zena. Aldiz, prozesu historiko baten ondorioa dugu honakoa, gizarte kapitalistaren oinarrian dagoen klase harremanaren sorrera ahalbidetzen duena. Prozesu honen azalpen historikoa garapen kategorialetik at geratzen den arren, lan-jardunaldiaren bostgarren azpikapituluan (Lan jardunaldi arruntaren *-jornada laboral normal-* aldeko borroka izenekoan, kapitalismoaren hastapenetako garaian kapitalak aurrera eramandako prozesu diziplinarioaren berri ematen du: besteak beste, nola izan zen langilea haren lan egiteko gaitasuna bere erreproduzioaren truke saltzeko azalduaz (Marx 1975, 327-335).

<sup>7</sup> “Kapitalak hil edo biziko bulkada berria du, bere burua balorizatuzkoa, gainbalioa sortuzkoa, haren zati konstantearekin, ekoizpen bitartekoekin, ahalik eta gainerako lan gehien xurgatuzkoa. Kapitala hilda dagoen lan hutsa besterik ez delako,

Alabaina, ezinbestekoa da aintzat hartzea kapitala ez dela gainlana sortu duena; ezpada ekoizpen bitartekoen gaineko gizarte sektore batek egikaritutako monopolioa. Ekoizpen bitartekoen gaineko kontrol eta jabetza pribatua izan zen berauetatik besterendutako gizarte taldeak euren biziraupen propiora bideratutako lanaz gaindi, ekoizpen bitartekoen jabeen erreprodukzioarako lan egitera behartu zituena. Hala eta guztiz, gizarte kapitalistaren baitako gainlanaren formak hainbat bereizgarri ditu aurreko gainlan motekin; besteak beste, harreman sozial kapitalisten funtsa eta helburua gainbalioaren beraren ekoizpena den heinean. Azken batean, gainbalio beharra da aurreko formazio sozialetan ez bezala, ekoizpen bitartekoen jabeen gainlanaren gosea *-hambruna de plustrabajo-* eragiten duena; langilearen muga fisikoekin talkan sartzerainoko lan-jardunaldiaren luzapena ekoizpenaren nahitaezko baldintza bilakatuz (Marx 1975, 283). Halaber, gainlana tenporalki eta espazialki lan-indarraren erreprodukzioa bideratutako lanarekin urtzea, hau da, lan-jardunaldiaren baitako elementua izatea da aurreko gizarte formetatik bereizten duena (Marx 1975, 283-284).

Hau guztia dela eta, gizarte kapitalistaren funtsa den gainlanaren gosea da lan-jardunaldia modu mugagabeen luzatzea eragiten duena<sup>8</sup>; kapitalak erakusten duen joera baita muga moralak nahiz lan-jardunaldiaren muga fisikoak -langilearen erreprodukzio soilari dagokionak- ere gainditzen dituela (Marx 1975, 319). Hortaz, kapitalak lan-indarra ahalik eta gehien xurgatzeko, hazkunde fisikorako, gorputz-osasunaren garapen eta mantenurako beharrezkoa den denbora ukatzeaz batera horretaz baliatzen da. Modu horretan, giza lan-indarraren gaitasun galera fisiko eta morala eragiteaz gain, lan-indarraren beraren agortzea eta heriotza dakartza (Marx 1975, 320). Gainlanaren goseak XIX. mendeko Ingalaterrako langileen lan-eta bizi-baldintza penagarriak islatzen ditu Marxek hirugarren eta laugarren azpi-kapituluetan.

Pentsa liteke lan-jardunaldiaren luzatze mugagabeak eragindako langileen bizi-esperantzaren jaitsierak edota osasun-arazoez kapitala eraman zezaketela lan-jardunaldi *arrunta* arautzera edo laburtzera, lan-indarraren hilkortasuna handitzeak lan-indarra modu azkarragoan ordezkatu behar izatea ekar diezaiokeelako, ekoizpen gastuak handituz. Baina, momentuko balorizazio beharraren sen bitala da kapitala mugiarazten duena, eta ez da epe luzeagoko arazoez jabetzen. Kapitalak soilik erreparatzen dio langileen osasun eta bizi-esperantzari gizarteak behartua denean (Marx 1975, 320-325), hau da, langile mugimenduaren indar historikoak inposatzen dionean. Bosgarren eta seigarren azpi-kapituluan jarduten da egilea Ingalaterrako ekoizpen adar jakinetan lan-jardunaldiaren legediak malgutzeko edo gogortzeko langile klasearen eta kapitalisten klasearen artean 1833 eta 1864 urte artean izandako tirabirez (Lebowitz 1992, 52); bai eta beste herrialdeetako langile mugimenduen borrokez ere (Heinrich 2019, 144).

Bukatzeko, orain arte esposatutako edukitik eratoritzen diren garrantzia handiko bi elementu azpimarratu daitezke:

1. Ekoizpen prozesuaren garapen mailaren araberrako bi joera ezberdin antzeman daitezke kapitalismoaren historian zehar. Izan ere, haren finkapen prozesuan (XIV. mendetik XVIII. mende erdialdera arte) agertutako joerak lan-jardunaldia modu hertsian ahalik eta gehien luzatzea bilatzen zuen, langileak bere burua erreproduzitzeko lan egin zezan behartuz. Luzapen mugagabe horrek, baina, kontrako joera eragin zuen, eta XIX. mendearen erdialdetik aurrera lanaldia mugatzera behartu zuten. Bide horretan, haren burua kapitalaren atzaparretatik babestu ahal izateko, beharrezkoa da langile klaseak klase gisa jardutea eta Estatu mailako legea, edo Marxen hitzetan, harresi soziala *-barrera social-* inposatzea (Marx 1975, 364). Hortaz, kapitulu honen balio politikoa, kapitalismoaren bilakaeraren ulerkera deterministen aurka, lan-

---

soilik biziberritzen dena lan biziaren jabetzean, eta soilik mantendu daiteke bizirik ahalik eta lan gehien xurgatuz” (Marx 1975, 279-280).

<sup>8</sup> Lan-jardunaldiaren luzatze eratorritako gainbalioari gainbalio absolutu zeritzon Marxek, “haren handitzea berak, handitze tasak eta handitze guztiak era barean esan nahi duelako sortutako balio osoa handitzea” (Marx eta Engels 1988b, 233 in Lebowitz 1992, 51).

jardunaldiaren nolakotasunean klase borrokak betetzen duen erdiguneko papera agerian uztean datza. Ildo beretik, langileak subjektu gisa hartuta, berauek ekoitziak diren eta haiek euren burua sortzen duçten baldintzak kapitalismoaren existentziaren funtsezko partea direla azpimarratu behar dugu. Horrekin batera, langileek haien burua subjektu politiko gisa eratzeko borrokaren garrantzia nabarmendu beharreko nahitaezko elementua da (Lebowitz 2002, 13 in Lebowitz, 1992).

2. Marxen garaiko gainerako posizio politikoek defendatzen zutenaren aurka, kapitalistak langileak egindako lana ez ordaintzea ez dator kapitala eta lanaren arteko trukaketaren bidegabekeria batetik; hau da, gainbalioaren sorrerak ez du zirkulazioaren esfera arautzen duen baliokideen arteko trukaketa urratzen (Ruiz Sanjuán 2019, 249). Izan ere, langileak haren lan-indar merkantzia saltzearen truke berau balio duena jasotzen du, hau da, ez da baliokidetasun-printzipioa hausten. Merkantzia erosten duenak, beste edozein erosle gisa, merkataritzaren trukea arautzen duen legean oinarrituz, haren merkantziaren erabilera balioari ahalik eta zuku gehien atera nahi dio. Horrela, kapitalistak lan-jardunaldia bikoiztu nahi duenean, erosle gisa dagokion eskubideari eusten dio; baina era berean, langileak ere saltzaile gisa dagokion eskubidea babestu nahi du lan-jardunaldia mugatzen saiatzen denean (Marx 1975, 280-281). Bada, ez dago baliokidetasun printzipioa babesteko kapitalismoa erreformatu beharrik, truke legea gauzatzearen ondorio baita kapitalistak gainlana modu ez berdinzale batean bereganatzea (Ruiz Sanjuán 2019, 251). Nola ebatzen den berdinak diren eskubideen arteko kontraesana edo talka erakusten du Marxek (1975, 282): indar politikoaren metaketaren bidez; langileriak lan-jardunaldi *arrunta* inposatzeko gaitasun efektiboa irabaztearen bidez.

## IX. KAPITULUA. GAINBALIO-TASA ETA GAINBALIO-MASA

Kapitulu honetan, gainbalio-tasa eta -masaren arteko harremana azaldu nahi du Marxek, horretatik abiatuta gainbalio-masaren kategoriaren mugak agerian uzteko. Esposizioaren abiapuntua da gainbalio-tasak langile batek denbora tarte jakin batean ekoizten duen gainbalioaren masa baldintzatzen duela. Jakina da gainbalio-tasak (p/v) lan-indar merkantziaren esplotazio gradu zehatza neurtzen duela, hau da, balioaren balorizazio gradua, gainbalioa kapital aldagarriarekin alderatzearen bidez (Heinrich 2018, 142). Bistakoa da, bada, ekoiztiko gainbalioaren masa gainlanaren eta beharrezkoa den lanaren proportzio horren araberakoa izango dela. Edo bestela esanda, gainbalio-masa kapitalista batek esplotatzen dituen lan-indarren kopurua -aurreratutako kapital aldagarri guztia- eta lan-indar bakoitzaren esplotazio-tasaren -gainbalio-tasa- arteko harreman zuzenak definitzen du (Marx 1975, 367-368).

Kontua da, gainbalio-masa jakin baten ekoizpenean berau baldintzatzen duen harremanaren baitako aldagaien arteko proportzioa aldatu daitekeela; demagun, kapital aldagarriaren murrizketa (langile kopuruaren jaitsiera, kasu), lan-indarraren esplotazio-tasa handituz konpentsatu daiteke, besteak beste, lan-jardunaldia luzatuz. Baina kontrara, gainbalio-tasaren beherakadak ez du zertan gainbalio-masan eragin, kapital aldagarriaren magnitudea handitzen bada (Marx 1975, 369-370).

Hala eta guztiz ere, gainbalio-masa mantentzeko edo handitzeko kapital-aldagarria handitzeak edo lan-jardunaldia handituz esplotazio-tasa handitzeak muga gairazirik egiten du topo<sup>9</sup>. Edozein izanda ere lan-indarraren balioa, langileak sor dezakeen balio osoa beti izango da egunaren 24 orдутan kristalizatu daitekeen balioa baino txikiagoa.

---

<sup>9</sup> “Gainbalioa ordaindu gabeko lan-denbora denez, kapitalaren ekoizpena xurgatutako lan-denboraren masaren araberakoa da. Garapenaren fase jakinetan eta langileen kopuru zehatzarekin, gainbalioa soilik handitu daiteke langileen lan-denbora luzatuz. Kasu honetan, muga gairazirik daude, lan-jardunaldia ezin baita 24 orдутara luzatu, ez eta soldata zerora berdindu ere. Baldintza hauetan, kapital metaketak lan-indar gehigarriaren beharra du; astiro bada ere gainbalio-masa handitzeko” (...) “Baina metaketari eusteko, beharrezkoa denez lanaren emankortasuna areagotu egin behar da” (...) “Horrek, baina, kapital zehatzaren aurrean erabilitako lan-indarraren kopurua gutxitzen du, eta horrekin batera, gainbalio-masa” (Mattick 1977, 28).

Hortaz, lan-jardunaldiaren limite absolutuak zailtzen du gainbalio-tasa handituz kapital aldagarria konpentsatu ahal izatea, bai eta lan-indarraren esplotazio-gradua areagotzea (Marx 1975, 370).

Bestalde, gainbalio-masa gainbalio-tasak eta kapital aldagarriak baldintzatzeak honakoa dakar: kapital aldagarria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da balioaren masa eta ekoiztako gainbalioa. Gainbalio-tasa eta lan-indarraren balioa emanda daudenean, gainbalioaren masa aurreratutako kapital aldagarriaren masaren arabera izango da. Edo bestela esanda, lan-jardunaldiaren muga zehatz baten baitan, kapitalistak ekoizten duen balioaren eta gainbalioaren masa esplotatzen dituen langileen kopuruaren arabera izango da (Marx 1975, 371).

Hau guztia dela eta, lege hauetatik zera inferitu daiteke:

1. Lan-indarraren balioa eta esplotazio-tasa emanda daudenean, kapital aldagarria handitzearen bidez gainbalioaren masa handitzen deneko legea etengabe ezeztatzen da errealitate zehatzean. Ekoizpen adar batean, kapital osoaren arteko proportzioak kapital konstantea aldagarria baino handiagoa dela erakusten duenean, ez dakar alderantziz denean baino gainbalio gutxiago eskuratzea (Marx 1975, 372). Azpimarratu behar da kapitulu honetan, Marxen helburua irudikapenezko sistema batean -zeinetan langile kopurua eta esplotazio-gradua alde aurretik emanda dauden- kapitalaren ekoizpen eta metaketaren garapenaren ondorio logikoa argitzea dela. Horren xedea da garapen kapitalistan inplizituki dagoen eta berau baldintzatzen duen joera atzematea. Esposizio logiko horren bidez, kapitalaren arazoak haren izaeratik bertatik eratortzen direla erakusten du, gainbalioaren ekoizpenetik bertatik<sup>10</sup> (Mattick 1977, 29).
2. Ekoizpenaren baitan, kapitala langileen lanaren gaineko agente boterea bilakatzen da. Pertsonifikatutako kapital gisa, kapitalistak beharginak ahalik eta hoberen lan egitea zaintzen du. Are gehiago, kapitala harreman hertsagarria da *-relación coactiva-*, langileria behartzen duena haren bizi beharrez gaindiko lana inposatzen diena. Bestalde, lan-prozesuaren ikuspuntutik begiratuta, beharginak ez du kapital gisa jarduten ekoizpen bitartekoekin, baizik eta haren eskuetatik kanpo dagoen helburu baten -gainbalioaren ekoizpenaren- lorpenerako bitarteko huts gisa. Balorizazio prozesutik begiratuta, ordea, ekoizpen bitartekoak besteen lana xurgatzeko bitartekoak bilakatzen dira. Hortaz, ez da langilea ekoizpen bitartekoak erabiltzen dituen; ekoizpen bitartekoak dira langileaz baliatzen direnak, beraien biritza bermatzeko berau kontsumitzen dutenak (Marx 1975, 376).
3. Orain arte kontsideratutako gainbalioaren ekoizpena, lan-jardunaldiaren luzatze hutsaren bidezkoa, ekoizpen moduaren garapen mailarekiko era autonomoan agertzen da (Marx 1975, 376). Horregatik, azaldutako legeak gainbalioaren forma honetan bakarrik dira egokiak. Gainbalio absolutuaren muga historikoak, baina, frogatuta gelditu dira pasarte hauetan.

---

<sup>10</sup>“Ekoizpen kapitalistaren benetako muga kapitala bera da; kapitala eta haren balorizazioa abiapuntu eta helmuga izatea, ekoizpenaren zergatia eta helburua; ekoizpena kapitalaren ekoizpena izatea eta ez alderantziz, hau da, ekoizpen bitartekoak ekoizleen bizi-prozesuak handitzeko bitartekoak izatea. Hemendik ondorioztatu behar dugu ekoizleen masa zabalen pobretzean oinarritzen den balio-kapitalaren mantenua eta balorizazioaren mugek etengabe talka egiten dutela kapitalak bere helburuak betetzeko erabili behar dituen ekoizpen metodoekin, metodo horiek ekoizpen-indarren handitze etengabea dakartelako, ekoizpena ekoizpenarengatik, lanaren ekoizpen-indar sozialen garapen mugagabea. Baliatutako bitartekoak -ekoizpen-indar sozialen garapen mugagabea- etengabe talkan sartzen dira bilatutako helburu mugatuekin, hots, momentuko kapitalaren balorizazioarekin. Hortaz, ekoizpen modu kapitalista ekoizpen-gaitasun materiala garatu eta horri dagokion mundu mailako merkatu sortzeko bitarteko historikoa bada, aldi berean eginkizun historiko horren eta ekoizpen baldintza sozialen arteko kontraesan etengabea darama bere baitan” (Marx Capital, III, 248 in Mattick 1977, 29).

## **BIBLIOGRAFIA**

Heinrich, Michael. 2018. Crítica de la Economía política. Una introducción a El capital de Marx. Guillermo Escolar: España.

Karl, Marx. 1975. El Capital. Volumen 1. Mercancía y dinero. La transformación de dinero en capital. La producción del plusvalor absoluto. Siglo XXI: Argentina Editores, S.A.

Lebowitz, Michael A. 1992. Más allá de El capital. La economía política de la clase obrera en Marx. Ediciones AKAL: España.

Mattick, Paul. 1977. Crisis & Teoría de la Crisis. Ediciones Península: Barcelona.

Ruiz Sanjuán, César. 2019. Historia y sistema en Marx. Hacia una teoría crítica del capitalismo. Siglo XXI: España.